



BIOLOGIAKO GRADUA

Irakaskuntza-baliabideak

Eskola magistralak, ikasgelako praktikak, mintegiak, ordenagailuko praktikak eta laborategiko praktikak emateko, Fakultatean eskuragarri izango dituzu:

- **56** irakaskuntza-gela: irakasle-mahaiko ordenagailuaz, kainoiaz, pantailaz, gardenkientzako erretroproiektoreaz eta arbelaz hornituak.
- **9** informatika-gela: kainoiaz, pantailaz, arbelaz eta ordenagailuz (21-40 bitarte, gelaren arabera) hornituak. Gela horiek graduko zenbait irakasgaitan erabiltzen dira ordenagailuko praktikak emateko, eta noizean behin, beharrezkoak diren programak berrikusi eta eguneratzen dira.
- **73** irakaskuntza-laborategi. Biologiako Graduan erabiltzen diren irakaskuntza-laborategiak irakasgai bakoitzeko beharren arabera hornituak daude, eta horietako gehienetan, 5S metodologia ezarri da. Lupak, mikroskopioak, inkubazio-labeak, inkubagailu orbitalak, biologia molekularrerako beharrezko materiala eta animalia- eta landare-ereduak aurkituko ditugu, besteak beste, gela horietan. Zenbait laborategitan, agente biologikoak erabiltzen dira praktikak egiteko. Laborategi horiei biosegurtasuneko 2. Maila aitortu zaie. Erabilera anitzeko 5 laborategi daude Biologiako Gradurako; bertan, gradu eta masterreko praktikak, GRALak, hedapen-jardunaldiak, Biologiako Olinpiadak... egin daitezke.
- Fakultatean, irakaskuntzara bideratutako guneetan, bitrinak aurkituko dituzu zenbait eredu eta espezimenekin.
- Fakultatearen inguruko lurretan arboretum bat dago ikasle eta irakasleei irekia.

Fakultatean honako hauek ere aurkituko dituzu:

- Ikasteko guneak, lehenengo solairuko hall nagusian eta 0.14 eta 2.12 geletan.
- Talde-lanak egiteko 2 mintegi (A5.P1.1 eta A5.P1.2 geletan, A eraikineko lehen solairuan).
- Informatika-gela bat, zentroko ikasle guztiek erabili ahal izango dutena.

[Lotura](#) honetan, zentroko gela eta zerbitzuei buruzko xehetasun gehiago aurkituko dituzu:

Bestalde, ikasleek UPV/EHUko Bizkaiko campuseko [liburutegi](#) nagusia (Fakultatearen parean dagoena) erabili ahal izango dute:

- Liburu zientifikoak, egin beharreko irakasgaien bibliografia barne hartzen dutenak, maileguan hartzeko aukera.
- Hemerotekarako sarbidea, aldizkari zientifikoen funts zabala kontsultatu ahal izateko.
- Ikasteko gelak erabiltzeko aukera.

Gainera, zentroko irakasleek [UPV/EHUko OCW proiektuan](#) kolaboratu dute, eta ematen dituzten irakasgaietarako materiala eskuragarri jarri dute.

Azkenik, irakasgai askotan, [eGela](#) izeneko ikasgela birtuala erabiltzen da irakaskuntza presentzialaren osagarri gisa. Bertan, irakasleek onlineko material ugari jartzen dituzte ikasleentzako, ikaskuntza aktiboa sustatzeko asmoz: apunteak, ariketa eta problemak, egin beharreko jarduerak,...